



kultura, merkataritza
eta turismoa

Kultura

Kultura Alorrak kultura sustatzeko ardura du, elkarbizitzaren, askatasunaren eta sormenaren adierazpen banakakoa eta kolektiboa den aldetik, eta horretarako, kultur jarduerak bultzatu eta koordinatzen ditu. Horrez gain, Sanferminen programa diseinatzen du, Udaleko beste hainbat alorrekin batera.

Besteak beste, ondoko helburuak ditu: Jarduera-programak sustatu eta garatzea, Civivox zentroetan; iruindarren artean kultura sustatzeko jarduerak bultzatzea; liburutegi publikoak ezagutarazi eta irakurzaletasuna sustatzea; talde profesionalen eta hiriko kultur erakunde eta entitateen kultur jarduna bultzatu eta sustatzea; sormena sustatu eta arte plastikoen, antzerkiaren eta musikaren adierazpen garaikideak hedatzea; programazio artistikoaren koordinazioa, Gayarre Antzokia

Fundazioaren bidez; eta euskarazko kultur jarduna sustatzea. Gainera, Iruñeak 2016. urtean Europako Kultur Hiriburua izateko helburua du. Izendapen horrek hiriaren garapen artistiko eta kulturala bultzatuko du, bai eta nazio zein nazioarte mailan Iruña ezagunagoa izatea ere.

Bestetik, hona 2008an izandako hainbat gertaera kultural garrantzitsu: Kondestable jauregiaren inaugurazioa, bertan bi erakusketa paratuta -hots, Pablo Sarasateari buruzkoa eta Iruña Berriz aurkitua izenekoa, non hiriko lurrazpian aurkitutako pieza arkeologikoak izan baitziren ikusgai-; Pablo Sarasateren mendeurrena; Jorge Oteizaren inguruko zikloak; eta Agustín Castellón Campos, "Sabicas" gitarra-jotzailearen inguruan egindako jarduerak.



Aurrekontua

BETETAKO AURREKONTUA, URTEZ URTE

	2005	2006	2007	2008
Administrazio orokorra	594.675	415.137	463.909	682.010
Liburutegiak	2.065.972	758.481	331.190	314.077
Kulturako azpiegiturak.	7.096.727	6.746.609	8.994.500	6.023.295*
Kultur hedapena: beste hainbat entitaterekin batera egindako programak	1.588.166	1.630.580	1.723.063	1.871.112
Kultur hedapena: Udalak ekoiztutako programak	1.220.417	1.504.644	1.133.639	1.320.060
Euskaraz egindako jarduerak	412.363	385.256	422.167	444.821
Sanferminak	3.031.017	3.056.839	3.101.999	3.115.092
Guztira	16.009.337	14.497.546	16.170.467	13.770.467

* Betetze-maila txikiena inbertsioen kapituluari dagokio.

Kultur jarduerak

Kultura Alorrek kontzertu-ziklo batzuk antolatzen ditu urtero, hala nola Musika, otoitz egiteko garaian, Kale-musikari buruzko nazioarteko topaketak, Musika Udazkenean, Jazza, kolean, Musika-goizak, Musikarekin buruz buru edota Eguberrietako kontzertuak. Literatur-sormenari buruzko lehiaketarako deialdiak ere egiten ditu, adibidez, Haurrendako antzerki-testuen lehiaketa. Horiez gain, profesionalak ez diren talde artistikoen sustatzen ditu, kultur jarduerak antolatzeko diru-laguntzak ematen ditu, hitzarmenak sinatzen ditu -musika-entitate eta -taldeekin- eta Sanferminetako programa prestatzen du.

Horrenbestez, programa horiek beste entitate eta talde artistikoekin batera egindako beste batzuek osatzen dituzte: La pamploesa musika-bandaren kontzertuak edota Iruñeko Orfeoiarekin, Pablo Sarasate orkestrarekin, Iruñeko Katedraleko Musika Kaperarekin, Ganbera Abesbatzarekin edo Operaren Adiskideen Gayarre Elkartearekin hitzarmenak izenpetuta entitate horiek urtean zehar eskaintzen dituztenak.

	2005	2006	2007	2008
Udalak ekoiztutako programetako emanaldien kopurua	-	135	125	139
Parte-hartzaileak, Maestro Turrillas Pasodobleen konposizioko Lehiaketan	32	25	26	-
Hitzarmenak, entitate kultural eta artistikoekin	13	12	11	12
Emanaldiak, talde artistikoekin batera	210	229	225	227
Diru-laguntzak jasotzen dituzten kultur entitateak	15	15	10	7
Diruz lagundutako jarduerak	16	50	22	13
Emanaldietan parte hartzen duten artista afizionatuen taldeak	109	97	90	100
Artista afizionatuen emanaldiak	358	325	296	270
Beste entitateekin batera egindako ikuskizun eta programak	36	32	44	26





Civivox

Iturramako, Juslarrocha, Mendillorriko Sanduzelai, Zabalgune eta Kondestable jauregiko civivox zentroak udal-ekipamenduak dira, eta haietan hitzaldiak, kontzertuak, arte plastikoak, zinema, musika, dantza, antzerkia eta teknologia berriei buruzko jarduerak izaten dira. Bestalde, guneak lagatzen zaizkie, elkarte, talde eta entitateei, bertan kultura- eta gizarte-jarduerak egin ditzaten.

Civivox Condestable zentroak 2008ko apirilaren 22an ireki zituen ateak. Kondestablearen jauregia birgaituz Kale Nagusiaren eta Jarauta kalearen arteko elkargunean kokaturik dagoen hiriko eraikin historikoa berreskuratu da, zeina XVI. mendeko Iruñeko arkitektura zibilaren adibide bakarra baita. Erdigunean kokaturiko eraikin honek 5.000 m² ditu, beheko solairuan, eraikina ia osorik hartzen duten beste bi solairutan eta Jarauta kalera begira dagoen eraikinaren partean dagoen hirugarren solairu batean banatuta.

Eskaratzetik eraikinaren ardatza den 251 m²-ko patio nagusira igarotzen da. Patioa 14 zutabek zedarrizten dute eta lukanak ditu estalkian. Behin patioa zeharkatuta, areto batera iristen da non kokatuko baita herritarrendako laguntza-bulegoa. Beste aldera Areto Nagusia dago. Horrek 187 m² ditu, eta 140 lagunendako tokia. Argiztapen-sistema soinu-mahaia eta proiektioetarako pantaila ditu. Patio errenazentistatik zerbitzuko patio ohira igarotzen da, eta handik Areto Gotikora, hau da, eraikinaren parterik zaharrena, zeina XI. mendearen bukaeran eta XII. hasieran eraiki baitzuten. Horren egituran aipagarriak dira bertako hiru arku zorrotz handiak.

Lehen solairuan hiru areto handi dira, 250na m² eta zura polikromatuzko sabaiak (alfarjeak) dituztenak. Bigarren solairuan, beste bi areto handi daude. Lehenengoak arku zorrotzetako galeria du, Kale Nagusira begira. Hitzaldi-areto gisa erabiltzen da, eta 100 pertsona hartzeko tokia du. Bigarren aretoa, aurrekoaren ezkerrean kokatua, haurren aretoa da. Areto horretan Kondestablearen Etxea apezpikuaren egoitza izan zeneko grafitoak daude. Bertan 10 mahai, 40 aulki, eta liburuak garraiatzeko 2 gurdi daude, bai eta txikiendako tami bat. Bestalde, bigarren solairuan, pintura- eta eskultura-lantegiak dira. Bi lantegi horiek guztira 250 m² hartzen dute, eta horietan 10 mahai, 25 asto eta 50 aulki daude. Guztira, hamaika ikasgela eta erabiera anitzeko areto daude: horietako bederatzi erabilera anitzekoak guneak dira; horiei erantsdi behar zaizkie sukaldaritza-ikasgela bikoitza eta ziber-ikasgela.



	2005	2006	2007	2008
Civivox zentroak	3	5	5	6
Civivox zentrozen kultur programazioa: jarduerak	331	593	899	1.054
Aretoak lagapenean dituzten elkarte eta entitateak	279	368	368	403

CIVIVOX ZENTROEN ERABILTZAILEAK

	2005	2006	2007	2008
Civivox zentrozen programazioan	114.139	154.713	296.418	350.787
Aretoen lagapenean	227.726	206.680	228.561	232.669
Guztira	341.865	361.393	524.979	583.456



Liburutegiak eta argitalpenak

Iruñeak liburutegi publikoen sarea ondokoek osatzen dute: Iturrama, Mendillorri eta Sanduzela auzoetako liburutegiak -zein bere auzoko civivox zentroan kokaturik- eta Txantreako, Yamaguchiko, San Pedroko, Milagrosako eta Etxabakoitzekoak. Horiek guztiak Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarearen parte dira. Hona ematen dituzten zerbitzu nagusiak: funts bibliografikoa doan erabiltzeko aukera; argibideak eta aholkuak; irakurtzeko aretoa; haurrendako liburutegia; irakur-

keta sustatzeko jarduerak, hitzaldiak, Interneten nabigatzeko aukera; eta ikasleei zuzendutako bisita gidatuak, liburutegiak ezagutzera emate aldera.

Beste aldetik, Iruñeko Udalak 280 liburu ditu argitaraturik, guztiak Kultura Ministerioaren ISBN agentziak erregistratuta. Horietako gehienak monografiak dira, eta gainerakoak, hainbat bildumatan argitaratutako aleak.

LIBURUTEGIAK, ERABILTZAILEAK, MAILEGUAK ETA ARGITALPENAK

	2005	2006	2007	2008
Liburutegiak	5	7	8	8
Izena emana duten erabiltzaileak	17.161	24.260	29.497	33.448
Egindako maileguak	156.255	180.233	278.047	289.435
Funtseko agiriak	90.745	129.323	149.994	156.847

Liburutegien sareak urtean 289.435 mailegu egin zituen, guztira.

Gayarre antzokia

1998ko maiatzean, Iruñeko Udalbatzaren Osoko Bilkurak Gayarre Antzokia udal-fundazioa eratzeko erabakia hartu zuen, Gayarre antzokia kudeatze aldera. Estatutuekin bat, fundazioaren helburua "Gayarre antzokia kudeatu eta administratzea da, antzerkia, musika, dantza eta tankera horretako beste hainbat jarduera bultzatu, sustatu eta hedatzeko".

	2005	2006	2007	2008
Ikuskizunak	168	214	223	256
Ikusleak	87.444	102.460	108.261	122.124

Arte plastikoak

Arte plastikoei buruzko programazioaren jomuga sormenaren eta sortzaile plastikoen sustapena da, bai eta arteari lotutako proposamen eta lengoaia garaikideen hedapena eta publikoak eta espazioak sortzea ere, artearen inguruko eztabaidari eta kritikari begira. Programatzen diren jardueren artean hauek aipa daitezke: Zitudadelako Armen aretoan, Mistoeren eraikinean eta Bolborategian zein Rodezno Kondearen plazako aretoan, Kondestablearen jauregian eta Descalzos kaleko aretoan aldi baterako erakusketak egiteko urteroko programak; nazioarteko oihartzuna duen San Fermin kartelen bilduma; Iruña hiria Arte Plastikoei buruzko Nazioarteko Bienala; eta 1993an sortutako Arte Garaikidearen bilduma, egun 380 artelanez osatua eta urtero handituz doana, besteak beste Arco ferian erositako obrek. Bestalde, aipagarria da, baita ere, bisita gidatuen programazioa, hitzaldiak, mahainguruak, hurrei zuzendutako lantegi didaktikoak eta artistekin egiten diren topaketak, erakusketen inguruan.



	2005	2006	2007	2008
Erakusketak	61	58	57	65
Bisitariak	146.189	156.484	97.556	66.296
Erakusketa-egunak	1.883	1.729	1.865	1.872
Iruña hiria Arte Plastikoei buruzko Bienala: parte-hartzaileak	406	-	-	168
Arco ferian erositako artelanak eta bestela eskuratutakoak	19	15	17	28
San Fermin nazioarteko kartel-lehiaketa: parte-hartzaileak	592	476	485	533
Iruña eta Artista Gazteak lehiaketa: parte-hartzaileak	64	43	80	66
I-Iruña marraztu eskola-lehiaketa: parte-hartzaileak	71	74	46	77

Euskarazko jarduerak

Udalak, dela berak antolatutako dela lankidetzazko hitzarmenen bitartez, kultur programazio etengabea eta kalitatezkoa eskaintzen die euskaldunei, hartzaila guztiei egokitua, hala adinari nola ulertze-mailari dagokienez. Horretarako, euskarazko kultur jarduerak antolatzen dira, hala nola lantegiak, antzerkia -helduei nahiz haurrei zuzendua-, musika, zinema, bertsojaritza eta literatur sormena sustatzeko jarduerak.

Argitaratze-jardunak euskara mota diferenteetako irakurleen artean hedatzea du xede, eta, horrekin batera, euskal ikerketen eta idazleen berri zabaltzea. Udalak berak egindako programen osagarri dira, bestalde, hainbat erakunderekin ba-

tera egindakoak, adibidez, Nafar Ateneoarekin batera guztien interesekoak izan daitezkeen gaien inguruan euskaraz egiten diren hitzaldi-zikloak.

Udalak, bestalde, euskarazko prestakuntza-jarduketak egiten ditu, udal-funtzionarioei zuzenduta, hainbat modalitatetan: udako barnetegia, EGAREN prestaketa, udako ikastaro trinkoa, beste ikastaro trinkoak, ikastaro arruntak, birziklatzea, mintzapraktika-taldeak eta tutoretzapeko autoikaskuntza. Azken ikasturtean (2008-2009), 83 lagunek hartu dute parte.

	2005	2006	2007	2008
Programatutako jarduerak	60	68	70	63
Sormen tailerrak	9	10	11	9
Sormen-tailerretan izena emandako parte-hartzaileak	120	118	130	103
Diru-laguntzak jasotzen dituzten kultur entitateak	15	14	10	9
Egile berrientzako literatur ikastaroa: parte-hartzaileak	15	-	-	13
Iruña hiria literatur beka: parte-hartzaileak	-	-	9	-
Haurrendako literatur lehiaketa: parte-hartzaileak	454	431	340	486
Gazteendako literatur lehiaketa: parte-hartzaileak	47	18	17	24
Hizkuntz prestakuntzako bekak eta laguntzak	7	9	18	9
Argitalpenak	4	4	5	3



Sanferminak

2008ko sanferminetarako 484 ekitaldi programatu ziren. Horietako 204 musika-emanaldiak izan ziren, 214, haurrei eta familiei zuzendutako ikuskizunak, 30, zezenen inguruko jarduerak, 28, askotariko ekitaldiak, eta 8, ekitaldi instituzionalak. Aurreko edizioetan bezala, programak klase orotoako sentsibiltate eta hartzaileri zuzendutako ikuskizun eta ekitaldiak bildu zituen, partaidetza eta festa-giroa sustaturik, eta kalea festetan protagonista direnak biltzeko gune naturalizat jotz.

Udalak 3.106.875 euro inbertitu zituen 2008ko sanferminetako programazioan. Kopuru horren ia erdia - 1.507.500 euro-

festa-ekitaldietan erabili zen, eta 25.000 euro, publizitatean eta propagandan (programa, diseinua, argitalpena, argazkiak, itzulpenak, etab.). Aurrekontu hori aurreko urtekoa baino pitin bat handiagoa izan zen, hurak 3.095.911 euro jo baitzuen. Beste alorrek egindako gastuak ere kontuan hartuz gero -batik bat, Herritarren Segurtasuneko eta Hiri Kontsebazioko alorrek egindakoak-, inbertsioa, guztira, 5 milioi euro ingurukoa da. Diru-sarrerei dagokienez, Iruñeko Udalak enkargatutako azterlan batek dio hiriak 74 milioi euro eskuratzen dituela sanferminetako 9 egunetan. Horietatik 45 milioi euro bisitariak gastatutakoak dira.

	2005	2006	2007	2008
PROGRAMATUTAKO EKITALDIEN KOPURUA				
(Ekitaldi ofizialak, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren ibilaldiak, su artifizialen bildumak, zezen-ikuskizunak, kontzertuak, dantzaldiak eta kaleko musika eta haurrendako jolas-jarduerak)	257	279	418	484

Merkataritza

Iruñeko Udalak Iruñeak merkataritzaren esparruan leku nagusi gisara duen eginkizuna epe luzera bultzatu eta finkatzea du helburu, merkataritza- zein enpresa-egituraren sustapenaren eta garapenaren bitartez. 2003. urtean hasi ziren egiten gure hirian merkataritza dinamizatu eta sustatzeko kanpainak, hala nola Pamplona Stock aukera-feria, Merkataritzarekin, hiri, hiriago programa, Arteak kalean merkatua, Hiru Burguen Erdi Aroko merkatua eta Eguberrien inguruan egiten den Artisauen merkatua. Horieta guztiera jende anitz hurbiltzen da.

Bestetik, 2006. urteaz geroztik, udal-merkatuetarako marketin-plana garatzen ari da, non komunikazio-ekintzak antolatu eta marka-irudia landu baitira, bai eta jarduera-programa zabala egin ere, helduei zein ikasleei zuzendua. Hori guztia Espainiako hirietako merkataritza-formatu berezi horren lehiakortasuna hobetzen laguntze aldera egin da.

Aurrekoaz gain, eta 2003. eta 2006. urteen artean abiatu zen Urban Enpresen Mediatekaren jarraipen gisara, Iruñeko Udalak Enpresak Sustatzeko Zerbitzua sustatu zuen 2007ko martxoan. Zerbitzu horren xedea enpresak sortu eta finkatzea da, bai eta hiri osoko enpresa-sortzaileei laguntza ematea ere, laguntza berezia emanik merkataritzari, ostalaritzari eta merkataritzarekin eta turismoarekin zerikusia duten enpresei.

Hona 2008an martxan dauden programak:

> Merkataritza dinamizatu eta sustatzeko kanpainak

- Pamplona Stock aukera-feria
- Liburu eta loreen feria
- Hiru Burguen merkatua
- Merkataritzarekin, hiri, hiriago
- Zatoz erostera erdigunera
- Eguberrietako artisau-feria
- Eguberritako argiak
- Merkataritzako hirigintza

> Iruñeko merkatuen marketin-plana

- Aste gastronomikoak
- Bisita gidatuak
- Vive el verano
- Haurrentzako sukaldaritza ikastaroak, oporretan
- Asteazkenetan... merkatuak!
- La compra saludable

> Enpresak Sustatzeko Zerbitzua

- Aholkularitza, enpresa-sortzaileentzat
- Merkatariei zuzendutako prestakuntza-jarduerak
- Hemeroteca eta mediateka
- Merkataritzaren Behatokia
- Café con libro

Merkataritzaren aldeko laguntzak eta proiektuak

AURREKONTUA, JARDUEREN ARABERA

	2005	2006	2007	2008
Merkatari-elkarteendako laguntza-deialdia	40.000	50.000	55.000	60.000
Diru-laguntza izendunak	93.000	81.250	95.000	93.000
Merkataritzaren arloko enpresendako laguntza-deialdia	-	-	-	900.000
Merkataritza dinamizatu eta sustatzeko kanpainak	185.000	388.500	417.000	525.300
Iruñeko udal-merkatuen marketin-plana	30.000	105.000	107.000	110.210
Enpresak Sustatzeko Zerbitzua	-	-	358.000	372.600
Guztira	348.000	624.750	1.032.000	2.061.110

Udal-merkatuak

JARDUERETAKO PARTE-HARTZAILEAK

	2007	2008
Jardunaldi gastronomikoak (otsailean eta azaroan)	2.500	2.400
Ikastetxeen bisita gidatuak merkatuetara	989	1.095
Haurrentzako sukaldaritza ikastaroak, oporretan (Aste Santuan eta Eguberrietan)	750	750
Haurrendako elikadura-lantegiak	450	75
La cocina de los mercados liburuaren hartzaileak	7.000	4.000
Lore-banaketa, udaberriaren hasieran	1.500	1.500
Poltsa berrerabilgarrien kanpaina	-	6.000
Guztira	13.189	15.820

Enpresak Sustatzeko Zerbitzua

Enpresak Sustatzeko Zerbitzuak aholkuak ematen dizkie enpresa-sortzaileei, negozio-ideiak abiaraz ditzaten, betiere laguntza berezia emanik merkataritzari, ostalaritzari eta merkataritzarekin eta turismoarekin zerikusia duten enpresei. Liburutegi bat dauka, non funtsa 1.000 agiri baino gehiagok osatzen baitu, ondoko gaiei buruz: negozio-ideiak, enpresen kudeaketa, merkataritzaren arloko ikerketa, arauak eta laguntzak, emakumea, eta erakundeetako informazioa. Hemeroteca handia dago, baita ere, enpresa-munduan espezializatua.

Gune multimedia ere badauka, non auto-prestakuntzako ikastaroak topa baitaitezke, enpresen kudeaketari buruz eta giza

baliabideei eta marketinari buruz; enpresei eta negozio-ideiei buruzko datu-baseak ere aurkituko dituzu, eta zenbait lantresna bideragarritasun plan bat prestatzeko, zerga-liburuak betetzeko edo bezeroen datuak babesteko. Azkenik, liburutegi digital bat ere badago, eta bertan ikerlanak, txostenak eta erakundeen informazioa daude.

Enpresak Sustatzeko Zerbitzuaren aurrekaria Urban Enpresen Mediateka izan zen, 2003tik 2006ra arte jardun zuena eta Alde Zaharrari zein Arrotxapeari zuzenduta zegoena. Enpresak Sustatzeko Zerbitzua, ordea, hiri osoari dago irekita. 2003tik hona 1.100 pertsona bazkide du bertan.

JARDUN-ADIERAZLEAK

	2007	2008
Zerbitzuko bazkideak	1.325	1.512
Aholkularitza	222	208
Sortutako enpresak	33	32
Bideragarritasun-planak	27	34
Parte-hartzaileak, prestakuntza- eta jendarteratze-jarduketetan	577	652
Multimedien erabilera, ordutan	1.590	1.721
Liburu-maileguak	428	827
Eskoletako bisitariak	117	113
Geografia-informazioko sistemaren (GIS) kanpoko kontsultak	20	41

Turismoa

Bi gertaerak bilakatzen dute Iruña nazioarteko hiria: Sanferminak eta Donejakue Bidea. Sanferminetan Iruñeak ehundaka mila pertsonari egiten die harrera, eta urteko gainerako hilabeteetan, eta batez ere, udaberrian, udan eta udazkenean, hiriko kaleetan erromes-andana ikus daiteke. Erromes horiek Iruñeko Udalak Compañía kalean eskaintzen dien aterpetxean lo egiten ahal dute, 2006az geroztik.

Baina Iruñeak besterik ere eskaintzen du, turismoari begira: bere historia oparoa, alde zaharra, berdegune ugariak, hiria ilargierdi baten gisara inguratzen duen eta ibiltariei gure nekazari-iragana erakusten dien ibai-parkea... Iruñean, bestalde, Nafarroako sukaldaritza tipikoa dasta daiteke, kalitatea-gatik ezagunak diren ardoekin batera, eta, are inportanteagoa dena, horri guztiari erantsita, Iruñeak halako giza-kultura dauka non ezaugarri nagusiak bertako biztanleen giza-kalitatea eta neurritasuna baitira.

Iruñeko Udalak osagai horiek guztiak hartzen ditu kontuan, Iruñearen eskaintza turistikoa sustatzerakoan. Sustapen hori ondoko programen bitartez bideratzen ditu:

> Turismoari buruzko marketin-plana

- Donejakue Bidearen Eguna
- Iruña, bidean lehena programa
 - > Bisitak, gaika
 - > Ardo- eta gazta-lehiaketa
 - > Posta-txartel ibiltariak
 - > Erromes-pintxoak
- Turismoko Argibide Gune
- Gastronomiari eta Osasunari buruzko Nazioarteko Biltzarra

> Turismo-kudeaketa eta -plangintza


- Turismoaren Behatokia
- Donejakue Bideko Produktuen Kluba
- Diru-laguntzen deialdiak, enpresa txiki zein ertainentzat eta elkarreentzat

> Seinaleztapen-plana

- Ibilgailuendako turismo-seinaleztapena
- Oinezkoendako turismo-seinaleztapena
- Entzierroaren ibilbidearen seinaleztapena
- Donejakue Bidearen hasieraren eta bukaeraren seinaleztapena

> Erromesendako azpiegiturak

- Iraizoz Txaleta aterpetxea - Paderborn Etxea
- Jesus eta Mariaren aterpetxea



Turismoaren garapena eta sustapena

AURREKONTUA

	2005	2006	2007	2008
Laguntza-deialdia	40.000	40.000	60.000	60.000
Diru-laguntza izendunak	55.000	82.000	95.000	95.000
Marketin-plana operatiboa	192.000	259.600	331.100	292.000
Iruñeko turismoari buruzko jardun-plana (hainbat urtetarakoa)	-	800.000	600.000	600.000
Erromes-aterpetxeak	27.000	37.600	39.100	-
Inbertsioak, Jesus eta Mariaren aterpetxean	-	-	1.360.000	-
Guztira	314.000	1.219.200	2.485.200	1.047.000

Adierazle nagusiak

	2005	2006	2007	2008
Donejakue Bideren Eguneko ibiltariak	1.000	800	600	350
Aterpetxeetan ostatu hartutako erromesak	12.779	13.543	16.412	18.495
Turismoko Argibide Gunean hartutako pertsonak	-	42.000	65.626	79.055
Donejakue Bideko Produktuen Klubeko establezimenduak	-	30	-	60
Oinezkoendako turismo-seinaleen kopurua	-	-	122	30
Ibilgailuendako turismo-seinaleen kopurua	-	-	138	70
Turismoaren Behatokiaren txostenak	-	-	5	6

Guztira, 18.495 erromesek hartu zuten ostatu Iruñeko aterpetxeetan, eta 79.000 turistari baino gehiagori eman zitzaaien arreta Udaletxe plazako Informazio Gunean.